

JOSE MARÍA IPARRAGIRRE ZANARI.

Zenbait doñu eder
Euskal-erriari
Egin dizka onek
Iztegi ta guzi,
Billarreal-Urrechuko
Seme aundiari
Ara berso batzuben
Iparragirreri.

Onen doaya zér zan
Ez da errez jakiten,
Ain egoki zituben
Doñuak somatzen;
Biyotzian zaizkigu
Benetan sartutzen,
Milla bider adi ta
Ez gera aspertzen.

Onen fama jaió zan
Berso batzubekiñ,
Gernikako Arbola
Kantatu zunakiñ;
Ain ederki zetozen
Gure Arbolakiñ,
Esan zituben gauzak
Euskal-erriyakiñ.

Egokiya zan guztiz
Doñuak ipintzen,
Eta guztiz ederki
Zituben apaintzen;
Gitarra zar bat lagun
Artu ta banatzen
Euskeraz etzan beste
Oberik azaltzen.

JOSÉ ZAPIRAIN.